



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

V. IKERGAZTE

NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2023ko maiatzaren 17, 18 eta 19a
Donostia, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)



Aitortu-PartekatuBerdin 3.0

GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Joseba Sarrionandiaren poesiako
molde zarratuak**

Ane Arandia Morgaetxebarria

51-58 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.v.01.06>

ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:



LAGUNTZAILEAK:



Joseba Sarrionandiaren molde zarratuak

Ane Arandia Morgaetxebarria

Euskal Herriko Unibertsitatea
ane.arandia@ehu.eus

Laburpena

Artikulu honetan Sarrionandiaren poesia molde zarratuek betetzen duten funtzioa aztertuko da. Molde horiek hainbat generotako lanetan barreiatuta daude, eta horiei buruzko aipamen edo iruzkin laburrak egin diren arren, ez dago horiek sistematikoki aztertzeko saiakerarik. Kritikak iurretarraren kulturalismoaren aztarnatzat seinalatu izan du; halere, maiz, harreman intertestualak seinalatzera mugatu izan dira, batez ere. Hori horrela, tradizio kultura zertarako erabiltzen duen ikertu nahi da. Kontuan harturik, molde zarratuak egileak eraikitzen dituen zubi kulturalisten artean baliabide bat gehiago direla.

Hitz gakoak: Euskal literatura garaikidea, molde zarratuak, atsotitzak, epigramak, Sarrionandia

Abstract

This article will analyse the role of Joseba Sarrionandia's closed moulds. Although these moulds, which are scattered across various genres, have been briefly mentioned or reviewed, there is a wider absence of systematic analyses of this work. Critics have pointed to the culturalism of the Basque poet; but have often been limited to pointing out intertextual relationships. Therefore, the aim of this article is to investigate this author's use of cultured tradition, whilst placing special considerations to his use of closed moulds as an additional resource for creating culturalist bridges.

Keywords: Contemporary Basque literature, closed moulds, proverbs, epigrams, Sarrionandia

1. Sarrera eta motibazioa

Artikulu honen helburu nagusia Sarrionandiaren poesia-lanetan molde zarratuek¹, hala kultuek nola herrikoiek duten presentzia agerraraztea eta azterzea da. Molde zarratu izendatuko ditugu formagatik (ahapaldi, arau metriko eta abar) ezaugarritzen diren sorkariak (sonetoa, epigrama eta abar) edo gaiagatik edo enuntziario moduagatik (epika) bereizten direnak. Horrelakoak darabiltza iurretarrak, eta zenbaitetan euskal tradizioko molde itxiak erabili dituen arren (bertsoa, koplak, marijesiak eta abar), tradizio kulturekin lotutakoez soilik arituko gara lan honetan.

Mintzagai dugun idazlearen kasuan, argitaratutako lehen liburutik, *Izuen Gordeleketan Barrena* lanetik, lotu izan da idazle iurretarra kulturalismoarekin. Egileak berak ere lehen liburuaren hitzaurrean aitortu zuen: “literatura oro literaturaren literatura da, hots, literatura berari buruzkoa, eta poema orok aurreko poemagintzan du erroa, eta nirea ere erreferentzia literarioz beterik dago” (Sarrionandia, 1981: 6). Era berean, kritikariek ere kulturalismoarekin lotu izan dute aho batez (ikus Kortazar (2000: 357), Azkorbebeitia (1998: 92) edota Izagirre (2002)).

Ezin ditzakegu Sarrionandiaren poesiaren muinean dauden erreferentzia guztiak (idazle nahiz korrante literarioak) lan honetan aipatu, baina, bere laburrean, poesia molde kultu zarratuak noiz eta zertarako erabiltzen dituen aztertu nahiko genuke. Bestela esanda, noiz, nola eta zertarako erabiltzen duen tradizio kultura. Kontuan izanda, hala ere, eragin kulturalistak ez direla molde horietara mugatzen, eta oso bestelako bitartekoekin batera baliabide bat gehiago direla. Hortaz, idazle euskaldun-kubatarraren lanetan barreiaturik aurki daitezke epigramak, atsotitzak edota sonetoa bezain molde klasikoei jarraituz ondutako testuak dira gure aztergaia. Horietaz aipamen laburrak han eta hemen egin

¹ Izendapena Luis Alberto de Cuencaren aipu honetatik hartu dugu: “Hace unos quince años y guiado por lecturas helenísticas (la *Antología Palatina*) y provenzales (la lírica trovadoresca) abandoné una poesía de estructuras abiertas y empecé a escribir otra de estructuras cerradas” (De Cuenca, 1999: 395). Horren barruan sartzen ditu, esaterako, epigramak.

diren arren, interesgarria da horiek batera aztertzea, eta idazlearen sorkuntza prozesuaren muinean zernolako eragina duten agerraraztea.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Idazle bizkaitarrak ukaezinezko garrantzia du euskal letretan eta horren erakusgarri dira iurretarraren obrako zenbait alor azertzen dituzten ikerketa lanak. Beste askoren artean aipagarriak dira Azkorbebeitia (1998), Jaka (2011), Rodriguez (2013) edota Ayerbe (2016).

Kritikak aho batez lotu izan du poeta bizkaitarra eta kulturalismoa. Izan ere, iurretarraren obra poetikoaren irakurleak erreferentzia asko eta askotarikoak aurkituko ditu. Hainbeste dira, eta hainbesteko garrantzia dute testua ulertzeko orduan, non testuartekotasunari etekin berezia ateratzen dion autore kulturalistatzat jo dezakegun. Era berean, kulturalismoaz egiten duen erabilerak berak, eta kulturalismoaren ondoriozko beste baliabide batzuk postmodernitatearekin identifikatzen dugun hausnarketa metaliterarioarekin hertsiki lotuta daude. Hitz batean esanik, literaturari buruzko hausnarketa egilearen ibilbide osoan sumatzen den ideia poetikoa da, hainbestearino non bere poetikaren oinarrian dagoela esan daitekeen.

Hainbat egile eta tradizioekin lotu izan da egilearen sorkuntza-lana, eta erreferentzien zerrenda amaiezina da. Euskal tradizioa eta mundu zabalekoa uztartu ditu, hainbat lanek dute eragina Iurretakoaren sortze-prozesuan. Adibide bat ematearren, tradizioaz egiten duen erabilerari dela-eta, ezin esanguratsua da “Itzuler” olerkia. Gaia, izenburuan zehazten denez, itzuleraren gai odiseikoa da, baina kasu honetan Ulisesen baliokide euskaldunarena da *ni poetikoa*, Jaun Zurianorena. Álvarezek (2015: 16) dioenez, kulturalismoaren bitartez lehen pertsonaren erabilpena eta “autobiografia” bezalako izendapenak saihestu daitezke pertsonaia mitiko edo historikoen *ni*-aren irudikapenaren bitartez. Horrela idazlearekiko esperientzia edo izaera antzekotasunak dituen pertsonaia baten ahotsa erabil dezake idazleak zehar bidez bere ahotsa entzunarazteko. Bestela esanda, kulturalismoak poetari bere buruari buruz hitz egiteko aukera eskaintzen dio, beste ahots batzuen bidez, bere burua izendatzeko beharrik gabe. Gainera, Jaun Zuria aukeratzeak Bizkaiko sortzearen mitoa dakar arlora, eta modu horretan euskal testuetako mitoa mito greko-latinoaren ordeztzat aldarrikatzen. Gisa berean, *Gure oroitzapenak* (2018) bilduman dagoen “Ikaroren erorketa” poematik dioenez ere bermatzen du estrategia horren iraupen luzea egilearengan. Izan ere, Brueghel eta Audenen ekarpen artistikoen bitartez entzunarazten du bere ahotsa.

Halere, artikuluko honen helburua ez da egileak egindako erreferentzien labirintoan murgiltzea, baizik eta molde kultuek egiten duen erabilerari erreparatzea. Izan ere, gutxi landu den alorra da, eta tradizio kultuaren birrelaborazioarekin lotzen da.

Álvarezek (2015: 44) kulturalismoari buruz egindako tesian dioenez, oso gutxi dira idazleek, oro har, baliatzen dituzten elementu berriak; berrikuntza elementu horien antolaketan eta erabileran datza, eta horrek ezinbestean dakar irakurleak gaitasun kultural jakin batzuk izatea. Hori guztia, gainera, postmodernitatearen kontzeptuarekin lotuta dago, ezen idazle postmodernoak eskura dituen baliabide literario guztiak darabilta hartzaileen pasibotasuna ekiditeko (Álvarez, 2015: 40).

Gainera, kulturalismoa ez da testuak aipamenez betetzea irakurleak kultura erreferentzia ugari eta zabalez inpresionatzeko. Askoz urrunago doan baliabidea da. Izan ere, erreferentzia kulturalak testuaren makroegiturari dagozkio, eta *inventio*an bertan hasten dira gauzatzen. Era berean, kontuan hartzekoa da erreferentziak ez direla zertan goi-mailakoak edo elitistak izan, kultura demokratikoa edo sozialagoaren parte ere izan daitezke (nahiz eta horrelakorik apenas dagoen iurretarraren lanean, ahozko euskal tradizioko molde batzuk salbu). Hori horrela, pintura errenazentistak eta antzinako mito greko-latindarrek espazioa partekatzen dute zinemako superproduzio handiko pertsonaiekin edo pop-rock abestiekin. Esan beharrik ez dago kulturalismoa ez dela erreferentzia literarioetara mugatzen, edozein kultura adierazpenetatik erator daiteke. Alabaina, esan bezala, molde kultueta mugatuko gara.

Artikulu honetan Sarrionandiak molde klasikoei ateratzen dien etekina agerrarazi nahi dugu, Álvarezek (2015: 40) adierazi bezala, *inventio*an bertan erreferentzia kulturalak daudela, hau da, zenbaitetan testuen oinarrian molde kultuak daudela.

2.1. Arloko egoera

Esan bezala, kritikak iritzi batez onartu du iurretarraren eta kulturalismoaren arteko lotura, ez dago, halere, molde edo azpigenero zarratu eta kulturalistei buruzko lan sistematikorik. Kasu batzuetan, horietako molde batzuei buruzko aipamenak eta lantxoak daude, baina ez molde guztiak elkarrekiko harremanetan ulertzeko saiakerarik. Molde zarratu kulturalisten baitan kokatu ditugu Iurretakoaren hainbat generotako lanetan ageri diren molde hauek: atsotitzak, epigramak, sonetoa eta molde klasikoari jarraituz zertutako poemak.

Azpigenero diskurtsiboak dira atsotitzak, epigramak, aforismoak, adagioak, sententziak eta beste, eta nekez sailkatzen dira genero handien artean: ez dira poesia, eta ez dira narratiba, baina saiakera izatera ere ez dira iristen, sobera laburrak eta fragmentarioak direlako.

Halere, prestigio literario eta intelektual handiko azpigeneroak dira, mendebaldeko tradizio literarioak eredu ospetsuak dira, esate baterako, Marco Aurelioren epigramak, edota Montaigneren *Essai*etan aurki daitezkeenak. Errenazimenduaz geroztik, jakitate klasikoaren berpiztearekin batera, epigrama sortak idatzi zituzten Grazianek gaztelaniaz eta Pascalek frantsesez, inteligentzia, adimen zorrotasuna eta hizkuntzaren bidez hura adierazteko gaitasun sintetikoaren lekuko gisa. XVIII. mendean etorri zen modernitateko aforismo bildumarik ospetsuenaren egilea Georg Lichtenberg, 1769-1799 artean idatzitako kaietako ohar argi eta erakargarri sortaren egilea. Aforismo deritze haren idatziei, eta hartara, sententzia labur eta doktrinalak izan beharko lukete, arte edo zientzia jakin bati buruzkoak. Aforismoa maxima, axioma edo apotegmaren sinonimo baita, baina Lichtenbergenak harrigarriak dira, uste gabean ezbaian jartzen baitute erlijioari edo zientziei buruzko baieztapen edo sineste hedatuenak. Egile horren testuek, beraz, aforismo baino, beste deituraren bat egokiagoa lukete, eta sarritan, Sarrionandiak epigrama edo atsotitz deitu duenaren antza dute, non umore beltzez edo ironiaz blaituriko adierazpenak topa ditzakegun gizakiari dagozkion gaiez hausnarturikoak, sarri guztiz osatuak ez daudenak, anbiguetatean utziak edo hitzen adierazpen gaitasunen muga jarriak.

Sarrionandiaren testu horiei buruzko iruzkin eta aipamen laburrak aurki daitezke han eta hemen: Kortazarrek (2000: 353) *Izuen Gordelekuetan Barrena* liburuko epigrametan sumatu zituen hainbat eragin aipatu zituen; Iñaki Arranz (2006: 191), *Hitza* azti saiakeran, Iurretakoaren atsotitz apokrifoez labur aritu zen; Iñigo Astizek *Hitza bide, bizia xede* liburuaren aurkezpeneko egindako artikuluan Martzial idazle klasikoarekin lotu zituen bertako epigramak. Hala ere, sonettoa aipatu izan da gehien, Sarrionandiaren literaturan intertestualitateak duen garrantzi handiaren adibide gisa (Rodríguez, 2013: 118-124). Horiez gain, jakina denez, tradizio kultu nahiz herrikoiko beste azpigenero zarratu batzuk ere erabili ditu egileak², baina ez ditugu lan honetan aztergai izango.

2.2. Helburua

Artikulu honek bi helburu ditu: batetik, Joseba Sarrionandiaren obra poetikoan molde zarratu kultuek duten presentzia aztertzea eta, bestetik, molde horiek noiz eta zertarako erabiltzen dituen ikertzea. Izan ere, erreferentzia eta iruzkin laburretara mugatzen dira molde zarratuez egindako aipamenak, eta horien helburu nagusia testuartekotasuna lantzea eta hausnarketa metaliterarioa adieraztea izan ohi da. Hori horrela, poetak darabiltzan molde kultu guztiak batera aztertzea, eta testuartekotasunari baino gehiago, molde horien erabilerari erreparatzea interesgarria delakoan gaude.

3. Ikerketaren muina

3.1. Metodologia

Artikulu honetan Sarrionandiak erabiltzen dituen molde zarratuak edo azpigenero kulturalista jakin batzuk aztertuko dira. Horretarako, lehenik eta behin, molde horiek identifikatu eta bilatu dira iurretarraren sorkuntza-lanetan. Izan ere, askotariko liburuetan aurki daitezke: poesia-bildumetan, narrazioetan, saiakeretan edota beste autore batzuekin batera osatutako lan kolektiboetan.

Lehen urrats hori egin ostean, genero bakoitzari dagokion bibliografia zehatza erabiliz ikertu dira testuak, eta horiek interpretatzeko bidea ahalbidetu. Azkenik, genero bakoitza bere kabuz aztertu ostean, molde zarratuak edo azpigenero kulturalistak noiz eta zertarako erabiltzen dituen azalduko dugu lan honetan.

3.2. Sarrionandia eta molde zarratu kultuak

Esan bezala, Sarrionandiaren lanetan badaude molde zarratuak darabiltzaten hainbat testu era bateko eta besteko generoetan eta bilduma hibridoetan txertatua. Horien artean sailka daitezke honako hauek: atsotitzak, epigramak, molde klasikoari jarraituz egindako olerkiak eta sonetoaren egituraketari jarraituz izen bereziz bakarrik sortutako olerkia. Jarraian arituko gara horietaz.

Atsotitzak

Atsotitzak jatorrian ahozko literaturaren esparrukotzat jo ziren; Errenazimenduan, ordea, genero ikasi bilakatu ziren. Paremiologia arduratzen da atsotitzen azterketaz, eta esaldi laburrak izan ohi dira,

² Adibidez, Otaegik (2017: 219-236) ziklo arturikoko pertsonaiak erabiliz sortutako narrazioak aztertu zituen.

nahiz eta batzuetan ez diren esaldi izatera heltzen (bi hitz nahikoa izan daitezke), eta bizitzarekin eta inguruarekin lotutako herri jakinduriaren erakusgarri dira. Elipsi eta paralelismoen bidez lortzen da laburtasun hori, eta badira oroimenari laguntzen dioten beste hainbat ezaugarri, erritmoa, errima eta abar (Paya, 2013: 139). Oso antzinako generoa da, Bibliako proberbioen liburuan bildurikoek frogatzen dutenez, baina Rotterdamgo Erasmusen *Adagiorum chiliades* (1508) bilduma da eredu gisa aipatzea dagokiguna euskal bildumen aitzindari gisa. Generoaren prestigioa eraiki zuen idazlan horren “Prolegómenos” atarikoan, eta antzinateko testuetatik berreskuraturiko esapideak bildu zituen bertan, hala Plutarko, nola Diogenes, Platon, Aristoteles, Zizeron, Luziano, Tito Livio, Aulo Gelio, Virgilio, Horazio, Terentzio, San Jeronimoren testuetatik aukeratuak.

Berpizkundeko Humanismo erasmistak hedatutako sentiberatasunaren eraginez, atsotitzak, esaerak eta antzinako kanten zatiak biltzeari ekin zioten zenbait adituk. XVI. mende bukaeran eta XVII. mendearen erdialdera paremiologo batzuek atsotitzak bildu zituzten, eta kronikagile eta geneologista batzuek beren obretan guduen eta heriotzen berri ematen zuten pasarteak ere txertatu zituzten (Aldekoa, 2008: 9-10). Hemen denak aipatzea ezinezkoa den arren, aipamen laburra egingo diegu bilketa lan esanguratsueni.

Gaur egun ezagutzen den euskarazko lehen errefrac bilduma *Refranes y sentencias comunes en bascuence, declaradas en romance con números sobre cada palabra, para que se entiendan las dos lenguas* (1596) izenekoa da. XVI. mende amaierako beste bi errefrac sorta ere ezagutzen dira Esteban Garibai historialariaren bidez heldutakoak. XVII. mendean, berriz, Oihenartek bildutako bilduma dugu.

XIX. mendean errefracuekiko interesa areagotu zen. Izan ere, erromantikoen ustez genero horretako errefracuetan herri-jakintza ere egon bazegoen. Halere, XIX. mendekoak dira ikerlan eta bilketa gehienak eta esanguratsuenak. Bilduma zaharrei buruzko azterlan aipagarrien artean Julio Urkixok eginiko lanak aipatu behar dira, Koldo Mitxelena *Refranes y Sentencias* bildumaz eginiko azterketa sakona, eta garaikideen artean, berriz, Joseba Lakarrak *Refranes y Sentencias* buruz eginiko edizio kritikoa (1996) non ikerlan filologiko zabalaren emaitza mamitu zen.

Sarrionandia eta atsotitzak

Sarrionandiaren obrari erreparatzen badiogu, atsotitzek badute presentzia, eta *Refranes y Sentencias* bilduma genero ezberdinetako lanetan ageri da.

Olerkiei dagokienez, bi poematan ageri da *Refranes y Sentencias* bilduma biak adiera ezin interesgarriagoetan. “Hurrutirean boluara dator hura” olerkiak errefracuekiko zaletasunaren berri ematen digu: “Laket zait antigualeko izkribuak leitzea / (Hurrutirean boluara dator hura) / gure mintzairako lehenagokoen gauzak, / (Hurrutirean boluara dator hura), / ez haien esanahia zehatz ulertzen dudalako, / (Hurrutirean boluara dator hura) / hizpidea iragan mendeetan galdu dutenean ere bai. / (Hurrutirean boluara dator hura) / Berben materia berrosatzen ahalegintzen naiz / (Hurrutirean boluara dator hura), / haien esangura atzendua igartzen” (Sarrionandia, 1995: 91).

“Gabriel Aresti” olerkian, bestalde, poeta izateko hitzen (eta, zehatzago, antzinako hitzen) gaineko gogo eta deszifratzea beharrezkoa dela iradokitzen da. Olerkiak hiru argitalpen izan ditu, eta gero eta agerikoagoa da aipatutako lotura. Poemaren azken argitalpenean³ *Refranes y Sentencias* bildumako atsotitz bat ageri da, zeina poeta bilakatuko den umearen irudimenari lotuta dagoen: “Perretxiko biltzaileek estropezu egiten ditek / hik utzitako harrian. / Ume bakar baten irudimenari / (aspertu banekio, asper lekiket⁴) / ipini dizkiot hegalak aurtan / Zorrotzako eskolan” (Sarrionandia, 2013: 142).

Gainontzeko generoetan ere presente daude atsotitzak, *Refranes y Sentencias*etik harturikoak batez ere. *Akordatzen, Hitzen Ondoeza, Bizitzea ez al da oso arriskutsua?, Airea ez da debalde, Gauzak direna balira* eta berriki argitaratutako *Munduari bira eman zion ontzia* liburuan ere. Batez ere hausnarketa filologikoak egiteko aipatzen dira (dela etimologiaz aritzeko, dela hitz baten ortografiaz hausnartzeko).

Han izanik hona naiz liburuaren kasua da, ordea, guztietan esanguratsuen. *Hitzen ondoeza* liburuan Oihenartek bildutako *Han izanik hona naiz* errefracua emateaz gain, esaera hori sortu zeneko alegia ere kontatzen du: negua zela txori batek beste bati habia kendu nahi zioenez “Orhin ekia bero” esan zion, baina habiako txoria engainuaz konturatu, eta “Han izanik hona naiz” erantzun zion. Hori da, hain zuzen ere, iurretarrak 1992. urtean argitaratutako narrazio liburuaren izenburua. Hainbat narrazioren amaieran “Han izanik hona naiz” ageri da, testuartekotasunak eraikiz, eta txori bizkorrek bezala, engainuaren diskurtsoari aurka egiteko estrategiak garatzen ditu.

Horrez gain, liburuan bada “Atsotitz apokrifikoak” izeneko pasarte bat, eta aurkezpenen zehazten denez, biltzailearen izena historiak ezabatu du. Beraz, beste bati egozten dizkio atsotitz horiek, berak

³ *Hnu y illa nyha majah yahoo* liburuako edizio berrituko da aipatutako berrikuntza.

⁴ *Refranes y Sentencias* bildumako hamargarren errefracua da, eta gaztelaniazko itzulpena “si me lo yo vengase, vengarse meya” da (Lakarra, 1996: 251).

sortuak izan arren⁵. Atsotitz horiek Zalgizek, Belak eta Oihenartek jaso zituzten, baina hitz ordena aldatzen die esanahi berriak sortzeko. Atsotitz apokrifo horietako bat da ‘Onest nezan Jainkoa, iduri zegidan tronkoa’. Berez, Zalgizek honako hau bildu zuen: “Onhets neçan troncoa, | iduri ceguidan jaincoa: Amé un tronco, se me figuró Dios” (Urquijo, 1908: 707). Eta Oihenartek, aldiz, beste hau: “Onhets nesan gure atsoa, iduri sequidan nescaxoa (Oihenart, 1657: 32 edizio fakzimila). Amé a nuestra vieja y me pareció jovencita” (Altuna eta Mujika, 2003: 198). Agerikoa da hitz ordena aldatzearen ondorioz guztiz bestelako esanahia hartzen duela atsotitz berriak. Izan ere, maitasunaren ondorioz maitatua eder iruditzen zaigula diote Zalgizek eta Oihenartek. Aldiz, iurretarrak ondorio ironikoa iradokitzen du: miresgarri dirudien Jainkoa maitatu eta hark zapuztu egiten duela bere onspena, enbor bat bezain ezgai eta baldar dela erakutsiko dionez. Erlijioaren kritika bihurtzen ditu, beraz, egileak, atsotitz zaharraren baieztapenetako hitzak bihurtuz.

Ildo horretan, aipagarria da, atsotitz apokrifo horietako batzuek irakurketa sozio-politikoak ametitzen dituztela, garaiko egoera politiko-sozialekin lotutakoak. Era berean, aipagarria da Otaegi (2017) ondorio berberera heldu zela ziklo arturikoko pertsonaiez osatutako narrazioak aztertzean.

Epigramak

Epigramak, jatorrian, hilarrietako edota monumentuetako idazkondeak ziren. Sorterrek (2018) dioenez, epigramen generoa ikertzeak ezinbesteko baldintza du epigrafiarekin lotzea orokorrean eta, zehazki, hilei egindako idazkunekin harremanetan egotea. Testuen izaera horrek sorrarazi zuen, hain zuzen ere, generoaren ezaugarri nabarmenena: laburtasuna. Díaz de Ceriok (1999) epigrama funerarioen bilakaera aztertu eta kronologikoki sailkatu zituen, lan narratiboagoetatik hasi eta, alokutibozko egitura berritzailetaraino. Gutxinaka-gutxinaka produktu literario bihurtu ziren, balizko grabazioetik aldentzen, eta ondorioz gaiak eta egiturak hedatu ziren.

Epigramen azpigenero garrantzitsuena, tradizioari dagokionez, maitasun gaiena da, zeinak goia jo zuen Calimaco edo Asclepiades bezalako autoreei esker. Konposizio hauetako maitasuna hotza da, oso intelektualizatua eta pasiorik gabea. Maitasun bizipena kanpotik ikusten da: genero objektiboa da, kanpokoa, inoiz bere jatorrizko ezaugarriren bat galtzen ez duena. Horren ostean, generoak garatuz jarraitu zuen, eta mota berriak sortu ziren. Horien artean emankorrenetariko bat, isekazkoa izan zen.

Halere, epigramen ideia modernoa ez dator epigrama grekoetatik, Martzialengandik baizik. Hura izan zen genero epigramatikoaren eraldatzaile nagusia. Lucio eta Nicarcoren eredu grekoa, Catulo eta erromatar tradizio satirikotik abiatu zen generoa berritzeko. Ortegak (2005) generoaren ezaugarri oinarritzotzat hartzen ditu laburtasuna eta amaiera aldeko zorrotasuna, kondentsazioa poetikoa eta irudiak sortzen duen inpresioa. Horregatik alderatu izan dira epigramak eta erleen ziztadak.

Euskal tradizioari dagokionez, Lekuonak (1977: 112) dioenez, Bilintxen garaian genero hau ezaguna eta ohikoa zen, ziri-bertso gisa ulertuta. Horren adibidetzat jotzen ditu Serafin Barojaren eta Bilintxen zenbait lan.

Sarrionandiaren epigramak

Kontuan hartzekoa da epigrama dela postmodernitate kulturalistan, sonetoeekin batera, gehien landu den azpigenero diskurtsiboa. Iurretarrak zertutako epigramen artean bi motatakoak aurki daitezke: *Izuen gordelekuetan Barrena* lanekoak; eta, *Hitz bide, bizia xede* (2012) liburukoak.

Lehenengokoei dagokienez, liburua ardatzen duten zazpi atalen ostean, beti lau bertsolerroz osaturiko zortzi epigrama daude. Askotarikoak dira testu labur horiek bai gai, bai metrika, bai errimaren aldetik. Guztiengan errepikatzen den ezaugarri bakarra lau bertsolerro izatea da. Naturako elementuak eta erreferentzia kultuak daude. Halere, tradizioari jarraituz, gehien lantzen den gaia heriotzarena da.

Bigarrenei dagokienez, Martzial idazle klasikoaren estilora egindako hogeita zortzi epigrama daude. Arestian aipatutako epigramak ez bezala, hauek hitz lauz idatzita daude, eta ‘zu’ bati zuzenduta. Alabaina, bada alde nabarmena Martzialek egindako epigramen eta Sarrionandiak ondutakoan artean: iurretarrak, Martzialek ez bezala, izenak (latin itxurako izen asmatuak) jartzen ditu eta gai politikoak lantzen. Bizkaitarrak molde klasikoari jarraituz eguneroko gaiak lantzen ditu, edo eguneroko elementuak daude. Hona hemen bi adibide: “Gerlaren alde mintzo zara, baina gerla telebistatik ikusteko asmoa duzu. Telebistazalea zara orduan, Hostilius, ez gerlazalea” eta “Zure bitzta, Autobulus,

⁵ Bide batez, aipagarria da iurretarrak ondutako hainbat testu beste egile batzuei egozten dizkiela. Adibide bat ematearren, *Hilda dago poesia?* liburuko “Hariak eta abestiak” ataleko egile eta biografiak asmatutakoak dira. Poema apokrifoan funtzioa Jakak azaldu zuen. *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* liburuko apokrifoek hau dio ikertzaileak: “fikziozko autoreari buruz ematen duen informazioa benetako autore batzuen inguruan ematen duena bezain sinesgarria denez, benetako autore baten poemen itzulpenen aurrean dagoela sinetsarazten dio irakurleari” (Jaka, 2012: 263). Horretan egilearen erreferenteetako bat den Marcel Schwob (1867-1905) idazlearen ereduari jarraitzen dio, zehazki *Vies Imaginaires* (1896) lanari.

iraungitze bat izan da ezta? Lehenengo independentista izan zinen, gero dependentista, gero dentista, ezta?”.

Horrez gain, aipatu nahiko genuke bizkaitarrak itzulitako poema antologietan presentzia dutela epigramek, esan nahi baita, epigramak sortu aurretik ezagutu eta landu zuela generoa.

Sonetoa

Sonetoa mendebaldeko tradizioan eredu kultutzat jo izan da. Poema laburrak dira, hamalau bertsolerroz osatutakoak. Lehen bi ahapaldiek lau bertsolerro dituzte eta azken biek hiru. Tradizionalki lehenengo bi ahapaldietako errimak besarkatuak dira, hots, ABBA egiturari jarraitzen diote. Azken bi ahapaldietan, ordea, gehienetan CDE edo CDC errimak erabili ohi dira. Halere, bestelako konbinazioak ere egin dira (Lekuona, 2008).

Silaba kopuruari dagokionez, aldeak antzeman daitezke. Espainian, Italiako usadioari jarraituta, hamaika silabakoak dira. Frantzian, hamabikoak. Halere, euskaraz hamalauduna deritzanak, asko landutako moldeak izanik, era askotako aldaerak izan ditu. Zenbaitetan malgutasun berriak ezarri zaizkio, batez ere, modernismoan eta ondorengo poesian (Lekuona, 2008). Euskal letretan gutxi erabili da sonetoa, eta ikertzaileen artean onartuta dago euskal sonetoek ez dutela egitura aldetik batasun eta eredurik. Beti “maisu”en lan edo erronkatzat hartu da sonetoa: Oihenartek landu zuen XVII mendean eta XX. mendean Lizardik, Krutwigek edo Mirandek ere bai. Arestik, esaterako, sorta interesgarria ondu zuen *Euskal Harria* (1968) bilduman.

Sarrionandiaren sonetoa

Sarrionandiak soneto gehiago idatzi zituela jakin arren⁶, bat baino ez da argitaratu: “berrogei IZEN SONETOA egiteko” edo “Berrogei izen” izenburukoa. Tituluak aurreratu bezala, sonetoa berrogei izen-abizenez osatuta dago. Sarrionandiak ABBA, ABBA, CDC, DCD egitura klasikoari jarraitu dio, baina, ez du ahoskera kontuan hartu, grafia baizik. Kasu honetan, jolas bezala ulertzen dugu sonetoa, izenak soilik erabiltzearen murriztapena baliatuz sortutakoa. Eta, beraz, abiltasun ariketa formal gisa aipa genezake, silaba kontaketa eta errima arau estuetan moldatzeko gaitasunaren erakusgarri moduan.

Euskal molde klasikoari jarraituz sortutako poemak

Amaitzeko, badira euskal bertso-molde klasikoari jarraituz ondutako beste bi poema, zeintzuetan Etxepareren moldeari jarraitzen dion egileak. Bietan esanguratsuenak “Disiecti membra poetae”, aurrerantzean DMP, narraziokoa da. Ipuineko narratzailea Etxepare bera da, eta Azkorbebeitiak (1997: 57) argitu zuenez, idazle behe-nafarrak egin ohi zituen tankerako eta neurriko bertsoak tartekatzen dira narrazioan zehar. Narrazioan bertan zehazten denez, “hemengo herbeste estu honetan apailatzen zuen bizimodua, koblak neurri emanean atontzen” (Sarrionandia, 1990: 23). Horrez gain, aipagarria da narrazioan olerkiari buruzko azalpenak ematen direla zenbait kasutan, eta beste batzuetan ahapaldiek ipuinean gertatutakoari erreferentzia egiten diotela. Esan bezala, DMP olerkia, narrazioan tartekatuta dago, ez da ahapaldika antolatuta ageri. Narrazioan tartekatzen da, hitz lauz idatzita dago, baina paragrafo bakoitza ahapaldi bati dagokio. Hau da, ipuinean paragrafo bat hitz lauz txertatzen du (ahapaldi bati dagokiona), gero narrazioarekin jarraitzen du, berriro olerkiari dagokion paragrafo bat tartekatzen du, eta horrela ipuinaren amaiera arte. Olerki hori Etxeparek erabili zuen 4/ 4// 4/ 3 eskema metrikoari jarraituz osatuta dago, eta errima ere idazle behe-nafarrak erabiltzen zuen tankerakoa da. Gainera, aipagarria da Sarrionandia ahalik eta hurbilenetik saiatu dela eskema metrikoari jarraitzen.

4. Ondorioak

Ikusi dugunez, Iurretako idazlea hainbat molde zarratu kultuz baliatzen da testuak sortzeko. Hala ere, ez ditu beti helburu berarekin erabiltzen. Askotarikoak dira darabiltzan moldeak, eta askotarikoak ere molde horiei ateratzen dien etekina.

Atsotitzei dagokionez, idazlearen filologiarekiko zaletasunaren erakusgarri dira. *Refranes y Sentencias* iturri filologiko gisa darabil eta hainbat generotako lanetan agertuko da hitzen etimologiaz edota esanahiaz hausnartzeko (beste iturri batzuekin batera, *Orotariko Euskal Hiztegia* eta autore klasikoen adibideak ere eramaten ditu bere lanetara). Bestela esanda, hizkuntzaz, edo zehatzago esanda, hitzen historiaz edo etimologiaz hausnartzen, azalpenak ematen, deszifratzen dituenen, begiratzen duen iturrietako bat da *Refranes y Sentencias*. Era berean, badirudi iurretarrantzat lotura zuzena dagoela hitzei buruzko hausnarketan eta poeta izatearen artean, badirudi poetaren eginbidea eta hizkuntzarekiko hausnarketaren arteko lotura ezinbestekotzat duela. Gorago aipatu dugun poeman dioen moduan,

⁶ Hau irakur daiteke *Marinel Zaharrak* liburuko hitzaurrean: “Bilduma honetatik aparte utzi ditut, finean, lehen liburuko orri ugari, gartzelan egindako kobla eta sonetoak, eta *Izkiriaturik aurkitu ditudan ene poemak* liburuan agerturiko apokrifiko batzuk” (Sarrionandia, 1987: 8).

poetaren xedea atsotitz horietan “lehenagokoen gauzak” aztertu eta horietaz hausnartzea da, eta lehenagoko euskaldunen “berben materia berrosatzen ahalegintzea”. Hortaz, euskal literaturaren tradizioaren memoria berreskuratzea du gogoan, eta “Hurrutirean boluara dator hura” atsotitzeko metaforaz baliatuz, iradokitzea bere testuetan ere iraganeko arbasoengandik datorren urak ibilarazten duela bere poesiaren bolua.

Hala ere, oso bestelakoak dira atsotitz apokrifoak. Horietan, eta beste horrenbeste esan daiteke *Hitza bide*, *bizia xede* liburuko epigramez, ezaguna den moldearen erabiltzen du egunerokotasuneko auziez aritzeko. Atsotitz apokrifoaren kasuan testuarekotasunak eraikiz eta moldaketak eginez esanahi berriak eraikitzen ditu. Beste horrenbeste egiten du Martzialen tankerara moldatutako epigramekin. Molde zaharrak erabiltzen ditu esanahi berriak eraikitzeko, hau da, tradizioaz baliatzen da. Tradizioa jotzen du, baina hitz jakitsuak bihurtuz orainaz aritzeko. Horretarako, sarritan etimologiak edota hitz jokoez baliatzen da independentista dentista bilakatzen den Autobulusi buruz diharduenean bezala. Bestalde, epigramaren gezia jasotzen duenaren izena ere alusiboa da: autonomia, autodeterminazioa eta gisako asmo politikoa duenari *-ulus* txikigarria erantsiz osatua: independentzia asmo handiagoaren orde, autonomia maila mugatuarekin konformatzen dena izendatzeko.

Hitz ordena aldatuz sortutako atsotitz zenbaitek bigarren irakurketa onar dezaketela uste dugu, eta hori ondorioztatu zuen Otaegik (2017) ziklo arturikoko pertsonaien inguruan osatutako narrazioez. Epigramek eduki satirikoa eta kritikoa dute, eta Martzial nahiz Lichtenberg-en ildoan, uste finkatuak eta ideia jasoak edo hedatuak sarritan ustel direla adieraztea dute helburu.

Sonetoa abiltasun ariketatzat ulertzen dugu, mendebaldeko tradizioan eredu kulturtzat jo izan denari beste baldintza bat jartzen dio: izen bereziz bakarrik osatuta egotea. Kasu honetan, beraz, Sarrionandiaren soneto ariketa hau OULIPO taldekoen jokoen antzekoa da, eta bere liburuetan aurkitzen diren beste zenbait testurekin batera aztertzea.

Azkenik, Etxepareren moldeari jarraituz eraturako bi olerki daude. Ipuinean txertatutako kasua esanguratsuagoa da. Izan ere, narratzailea Etxepare bera da. Ildo horretan, aipatu nahiko genuke, Álvarez (2015: 16) jarraituz, kulturalismoak poetari bere buruari buruz hitz egiteko aukera eskaintzen diola, bere burua izendatzeko beharrik gabe. Izan ere, poetaren ahotsa heldu ahal zaigu beste batzuen maskararen atzean eta horren bidez, “fikziozko autobiografia” eginez. Narrazioan zehar Etxepareri buruzko hainbat aipamen badauden arren, kasuren batean ahalbidetu egiten da Etxepareren eta iurretakoaren arteko paralelismoa, erbesteari egindako aipamenetan batik bat: “han zegoen herbestaturik, unibertsoaren denbora espazio nehurtezinetatik mundura, mundu zabalegitik ibarrera, ibar berdetik etxearen horma sendo eta finkoen artera. Hemengo herbeste hestu honetan moldatzen zuen bere bizitza, koblak nehurri emanean moldatzen eta bizi diren bezala” (Sarrionandia, 1990: 23)

Beraz, ikusi dugun bezala, molde zarratu kultuak erabiltzen dituen ere euskal erroak dituztenak eta mundu zabalekoak erabiltzen ditu, aldi berean. Eta horrek guztiz bat egiten du *Ni ez naiz hemengo* liburuko “Tradizioa eta sinkretismoa” sarreran esandakoarekin. “Euskaldun irauteko, alde batetik erroak eta geure tradizioarekiko fideltasuna abandonatu gabe, eta beste aldetik unibertsalitateera zabalik, beste tradizioetara eta beste sentsibilitateetara. Munduko jakintza geurea izan behar da, geure kreazioa ere munduarentzat izango bada” (Sarrionandia, 1985: 134).

Álvarezek (2015) bere doktoretza tesian espainiar poesia garaikidean kulturalismoa aztertu zuen. Ikertzailearen ustetan, material poetikoa sortzeko egunerokotasuna erabili nahi izateak antzinako generoak berreskuratzea dramatzat hainbat autore. Horren adibidetzat jotzen du epigramen eta Martzialen berreskurapena. Ikusitakoak ikusi, Álvarezek ondorioztatutakoa Sarrionandiaren kasuan ere aplikagarria dela uste dugu, eta esan dezakegu molde hauek erabiliz osatutako kulturalismoa ez dela azalekoa, sakonean eratan dela. Izan ere, iraganak orainaz aritzeko abagunea eskaintzen dio idazle bizkaitarrari, aldi berean euskal tradizio literarioa mundukoaren ondoan landuz, euskal berben materia berrosatuz, eta, era berean, euskal memoria aldarrikatuz, transmitituz eta iraunaraziz.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Etorkizunerako planteatzen den norabideari dagokionez, Iurretako idazlearen lanetan sakontzen jarraituko da, bere poetika osotasunean kontuan hartuz. Izan ere, gure ustetan, Sarrionandiaren poetika bere osotasunean hartzea izan daiteke iurretarraren balioa zein den ikusteko bide eraginkorrena. Beraz, bere obran konstanteak diren beste alor batzuetan jarriko da arreta.

6. Erreferentziak

- Aldekoa, I. (2008): *Euskal Literaturaren Historia*, Erein, Donostia.
- Altuna, P. eta Mujika J.A. (2003): *Euskal atsotitzak eta neurtitzak. Proverbes et poesies Basques. Proverbios y poesías vascas*, Euskaltzaindia, Bilbo [http://www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/55225.pdf].
- Álvarez, E.M. (2015): *Culturalismo en la poesía española contemporánea: tradición clásica y posmodernidad*, Universidad de Valladolid (UVA), Valladolid.
- Arranz, I. (2006): *Hitza azti*, Irun, Alberdania.
- Azkorbebeitia, A. (1998): *Joseba Sarrionandia: Irakurketa proposamen bat*, Labayru ikastegia- Amorebieta-Etxanoko udala, Bilbo.
- Ayerbe, M. (2016): *Euskal literatura garaikidea kritika genetikoaren argitan: Aresti, Sarrionandia, Saizarbitoria eta Atxagaren idazlanen sorkuntza prozesua aztergai*, EHUren web argitalpena.
- Díaz del Cerio, M. (1999): Estructura discursiva en el epigrama funenario: la evolución de un género, *Habis*, 30, 189-204.
- Igerabide, J.K. (2008): Epika, in askoren artean (arg.), *Literatur terminoen hiztegia*, Euskaltzaindia, Bilbo, 234-240.
- Jaka, A. (2012): *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Kortazar, J. (1989): Joven poesía vasca. Un acercamiento a la última producción poética, in J.A. Ardanza, L. Gurrutxaga eta J.M. Lasagabaster, *Congreso de literatura (hacia la literatura vasca). Actas del II Congreso Mundial Vasco*, Editorial Castalia, Barcelona, II, 127-140.
- Kortazar, J. (2000): *Euskal literatura XX. mendean*, Prames, Zaragoza.
- Kortazar, J. (2013): Literatura konparatuaren saioak (II). Pott Banda: Atxaga, Sarrionandia, *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, 34 (2), 343-360.
- Lakarra, J.A. (1996): *Refranes y sentencias (1596). Ikerketa eta edizioa*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Lekuona, J.M. (2008): Hamalaudun, in askoren artean (arg.), *Literatura Terminoen Hiztegia*, Euskaltzaindia, Bilbo, 310-312.
- Oihenart, A. (1657): *Les proverbes basques recueillis par le St D'Oihenart, plus les poesies Basques du mesme auteur* [edizio fakzimila], Paris.
- Ortega, B. (2005): Versiones, revisiones y (per)versiones del epigrama en las últimas generaciones poéticas, in J.R. González (arg.), *Orfeo XXI. Poesía española contemporánea y tradición clásica*. Libros del Pece-Cátedra Miguel Delibes, Gijón, 11-28.
- Otaegi, L. (2017): Sarrionandiaren ipuin arturikoak. Parodia, utopia eta desira, *Lapurdum.*, 20, 219-236.
- Paya, X. (2013): *Ahozko Euskal Literaturaren Antologia. Euskal Antologiak saila*, Etxepare Euskal Institutua, Donosti.
- Rodriguez, E. (2013): *Joseba Sarrionandiaren "Lagun Izoztua" eleberriko hiru itsasoak. Irakurketa proposamen bat*, Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV), Bilbo.
- Sarrionandia, J. (1981): *Izuen Gordeleketan Barrena*, Bilbo Aurrezki Kutxa, Bilbo.
- Sarrionandia, J. (1985): *Ni ez naiz hemengoa*, Elkar, Donostia.
- Sarrionandia, J. (1992): *Han izanik hona naiz*, Elkar, Donostia.
- Sarrionandia, J. (1995): *Hnuy illa nyha majah yahoo* (Poemak 1985-1995), Elkar, Donostia.
- Sarrionandia, J. (2012): Erromako barbaroaren epigrama batzuk, in F. Rey (arg.), *Hitza bide, bizia xede*, Pamiela, Iruñea, 109-116.
- Sarrionandia, J. (2013): *Hnuy illa nyha majah yahoo. (Poemak, 1985-1995)* edizio berritua, Elkar, Donostia.
- Sarrionandia, J. (2015): *Lapur banden etika ala politika*, Pamiela, Iruñea.
- Sorter, S. (2018): Ficciones de diálogo ecrástico en el epigrama funenario: Leónidas 7.422 y Alceo 7.429, in P.A. Cavallero, A.N. Schniebs eta L.M. Pégolo (arg.), *XXV Simposio Nacional de Estudios Clásicos "Migraciones, desplazamientos, conflictos en el mundo antiguo"*, UBA, Buenos Aires.
- Urquijo, J. (1908): Los refranes vascos de Sauguis, traducidos y anotados por Julio de Urquijo e Ibarra, *Revista Internacional de los Estudios Vascos RIEV*, 2 (5), 677-724.

7. Eskerrak eta oharrak

Artikulu honek 2019an hasitako doktorego-tesiaren atal bat biltzen du, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta EHUko Mikel Laboa Katedrak sortutako "Joxan Artze Ikerketa Saria" izenekoari esker ontzen ari naizena. Lourdes Otaegi tesi-zuzendariari eskertu nahi diot hasieratik eta bidean zehar emandako laguntza eta aholkularitza. Azkenik, partaide naizen "IdeoLit: La literatura como documento histórico" ikerketa taldea ere aipatu nahiko nuke.